

Gabriel Arestiren *Euskal Harriak* 50 urte

Bilbon, 2017ko urriaren 11n

Kronika

Urriaren 11n, “Gabriel Arestiren *Euskal Harriak* 50 urte” jardunaldia izan zen. Arestiren *Euskal Harria* poema bildumaren 50. urteurrena zela-eta, idazle bilbotarraren lana gogoratzeko, jardunaldi berezi bat antolatu zuten Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti kultura elkarteak.

Ekitaldia Euskaltzaindiaren Bilboko Plaza Barriko egoitzan izan zen. Saioari harri eta ongietorria Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xabier Monasterio Gabriel Aresti kultura elkarteko zuzendaria egin zioten.

Jardunaldian zehar, Oskorri taldeak hainbat kanta abestu zituen, ezaguna baita talde bizkaitarrak bere letretan Arestiren hainbat olerki erabili izan dituela.

Lehenbiziko hitzaldia Xabier Kintana euskaltzainak eman zuen “Aitaren etxeko atea mundura ireki zigun bilbotar poeta” izenburupean. Jarraian, Jon Kortazar Euskal Herriko Unibertsitateko Literatura katedradun eta ikerlariak Arestiren lehenengoetariko lana izan zen *Mailu batekin, biola batekin* obra aztertu zuen.

Mikel Martinez aktoreak, ostera, Hernanin Gabriel Arestik berak emandako hitzaldiaren dramatizazioa egin zuen.

Andoni Egaña bertsolariak ere parte hartu zuen jardunaldian. Arestik ahozko tradizioa eta modernitatearen arteko zubia eraikitzen egindako ahaleginez mintzatu zen bertsolari zarautzarra.

Gainera, ekitaldi hau Gabriel Arestiren lagun eta kolaboratzaile izan zen Agustin Ibarrolari omenaldi txiki bat egiteko baliatu zuten antolatzaileek. Horren karietara, Susana Jodra ikertzaileak Ibarrolak *Euskal Harria* poema-libururako egindako grabatuak aztertu zituen.

Arratsaldeko saioan, Bernardo Atxaga eta Arantxa Urretabizkaia Arestiren figurari buruz solasean aritu ziren. Horrekin batera, Joseba Sarrionandiak ekitaldirako bidalitako testu bat irakurri zen. Idatzi horretan, Sarrionandiak Xose Neira idazle

galiziarra eta Gabriel Aresti jartzen ditu harremanetan. Arestik marinel brasildar batekin topo egin zuen Bilboko moilan. Enkontru hura baliatu zuen, marinela bitartez, Arestiren zenbait liburu La Habanan bizi zen Neirari eraman ziezazkion. Sarrionandiak Neiraren Habanako etxean aurkitu zituen liburu horiek eta bitxi egin zitzaion Arestik liburu guztietan egiten zuen eskaintza: *Euskal Herria izango da hurrengo Vietnam*.